

# Natur Zientzietako Hiztegia Arantzadik emana

Urtea badoakigu. Berritasun asko eraman eta ekarri duen urtea. Gure kultur arlotxoari begiratu badiogu, berritasunik franko ikusten dugu hor ere. Periodismoan, esate baterako. Oso urte positiboa izan da. Baina urteak ekarri digun guziaren artean, guziaren gainean, nik obra bat deskatatuko nuke, konkista berri bat iruditzen zaidalako, muga berri bat jarri dugulako: Arantzadi talde baten Natur Zientziak, Biologia-Geologia, Hiztegia.

Diktadura azpian dena berriz hasi behar izan zenez gero, konkistatxoak eginaz doa gure kultura: orain poesia konkistatu, gero nobela, gero saiakera, gero periodismoa... Hiztegi honekin, urteotan zenbait jendeak entseiatzen zuen Natur Zientzien konkista, finkatu da.

Gauza sentsazionalak ez dira politikan bakarrik gertatzen. Sentsazionala da Natur Zientzietako lehen hiztegi hau, nolabait, Arantzadiko biologiari-geologiari talde batek egin diguna. Euskal Herri osoaren esker ona zor bost mosketero kultural horiei: Aizpurua, Altuna, Areso, Arluziaga, Iribar. Izen asko dira, baina denak eta bakoitza bere izenez aipatzea merezi du kasu honetan, zor diegun omen bezala. Esker ona, orobat (harrokeria pertsonal apur gutitan izaten bait dugu arrazoiez edozeinen aurrean harrotzeko), esker on Jakin talde lehiatsu era arretatsu horri ere. Arantzadi-Jakinen hau ezkontza ona izan da!

Ez sarri-sarri, baina noizean behintto, halako poz ttipi batzuk ematen dizkigu euskal idazkulturek. Poz haundirik ere suertatzen zaigu noiztik noizera. Mirariak bezala, gutitan suertatu ohi da holakorik.

LAK-ek Erreterian esan bezala, nazional alternatiba benetako klase alternatiba batetan oinarritu behar da: 'klase independentzia, nazio independentziaren oinarri posible duela esanaz bukatzen da liburua.'

JOSEBA BASARTE

Urte bukaeran, kontaduria egiteko unean, aurtun halako poz haundia eman digunari gorazarre egin nahi diogu.

Oraingoan, izan ere, isil-isilik, mirari bat gertatu zaigu. Lanak, eta lan latzak, egindako miraria. Egiazko mirari denak bezala. Lan egitea hori da. Zintzo eta egoki. Isil-isilik, lau urte lanean. Erraz esaten da: lau urte. Natur Zientzietako hiztegi honek — biologia, geologia — beharbada ez du arrakastarik eta zalapartarik sortuko nobelatxo bizi batek bezain erraz... Akzesit apal bat irabazita gelditu da Durangoko Liburu Azokan. Ez du "sentsaziorik egin" nonbait. Halare, neuri sentsazionala iruditzen zait bene-benetan.

Iriki eta ikusi besterik ez dago. Eta Egue-ri bezperetan halako erregalia egin digutenei, esker onik hoberena zor zaie publikoki. Eta kulturgintza batez ere lana dela, uste dugunok, aurtengo eta urteotako lan bikainenaren koroa Natur Zientzietako Arantzadi taldearen Hiztegi horri emango genioke, monarkia honetan Koroerik inon libre balego oraindik.

Azkenean hasi gara konprenitzen, lan-tegia dela euskal kultura. Ez, haizerrotekin burrukan ibiltzea. Suarezek eta, beti

haizerrotekin burrukan eraman nahi bagaituzte ere.

Eta hori ere nahiko sentsazionala da: natur zientziak dira prestijio gehieneko zientziak egun. Baina, talde soziologiko gisa behintzat, teknikoekin batera, natur zientzifikoak dira — barka zaidazute — talde sozial esterilena zentzu politikoan, konformistena, alferrena, gizarte antolaketaz axolagabeena, beren espezialitatean enterraturik dabilena, gizartegintzan enpeinatu gabeena. Natur zientzifikoak, beren filosofiarik, gizartegintzan enpeinatu gabeena. Natur zientzifikoak, beren filosofiarik egin nahi ez horrekin, "zientzia hutsaren" ideologia txar horrekin, zientzia naturalen nahitaezko eta berezko internazionalismo horrekin, sasi-positibismo eta neutralitate batetan errefujiatzen dira, Pilatos bezala, eta hor konpon esaten diote munduari. Nahiz eta gauza nabarmena izan, ezerk ez dituela egungo filosofiak eta epistemologiak gehiago influentziatzen, natur zientzia horietzek baino... Begira, ba, ez ote den nahiko sentsazionala, talde natur zientzifiko batek hain zuzen Euskal Herrian hainbeste konzientzia sozial eta konpromiso erakustea. Lau urte lanean. Eta zer lan apaletan, gero! Hori konzientziak egiten du, eta ez nolana-hikoak. Beren espezialitateko propio den zindotasun horrekin, natur zientzifikoek ongi asmatu dute, gauzak hasieratik hasi behar zirela, ez erditik edo azkenetik. Hasi- siera, oinarriak botatzea da. Eta horixe egin digute: oinarri-oinarriko lana. Baina oinarriok etxearen erdia ere badira, horratio!

Ez zait niri tokatzen ezer esatea, hiztegiari buruz, geologi edo biologi asuntan, hiztegia horixe izan arren. Saihetsetik ari nantzaio. Holako lanaren premia guziok genuen, biologari eta geologiari ez garenok ere. Edozeinek ez bait dauka jakin beharrik, zeren den blastoporoa, edo metameroko, edo zer den holozenoa, esate baterako. Baina gaur inor ez da libratzen eboluzioaz, mutazioez, hautespen naturalaz, hitz egin behar izatetik; eta ekologiaz, esate baterako, edo hormonez, Olimpiada urte honetan, noiznahi hitz egin behar izaten dugu edozein testuingurutan. Proteinak zer diren, jakin nahi dugunean ere, badaukagu orain nora begiratu.

Euskal kulturaren problema bat irakasle falta da. Geroz eta ikasle gehiago dator euskara eta gauzak euskaraz ikasi nahita. Beraz, irakasleak behar ditugu, eta, lehenengo, irakasle-irakasleak. Natur Zientzietako ikasle eta irakasleak beren Natur Zientzia horiek euskaraz ikas eta irakasten has daitezke. Alde batetik Natur Zientziak eta bestetik, aparte, euskara, ikasten ibili ordez. Udako E. Unibertsitateak hartuko dizu beregain eginkizun hori. Eta ez dugu dudarik, Natur Zientzietan bederen, Udako E. Unibertsitatearen lana asko erraztu dela Hiztegi honekin.

JOXE AZURMENDI

